

Nafarroako zenbait ikastoletako 700 ikaslek baino gehiago programazio hizkuntza eta trebetasun konputazionala lantzen dute TXAC PLANET metodoarekin

- Gaur aurkeztu da prentsaurrekoan Euroeskualdeak bultzatutako inizatibaren bigarren edizioa. Bertan parte hartzen dute Argia (Tutera), Zangoza (Zangoza), Labiaga (Bera) eta Erentzun (Viana) ikastoletako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek.
- «Berriro ere TXAC PLANETekin bat egingo dugu, ikasleak erraz baina eraginkortasunez murgildu daitezten programazio hizkuntzan, eta, unea iristen denean, programazio hizkuntza profesionalera jauzia eman dezaten», azpimarratu du Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE).
- Eduki berriek mundu digitalerako elementu garrantzitsuak sartzen dituzte, hala nola, zibersegurtasuna, teknologia eta sareen erabilera arduratsua sustatzeko.
- Egitasmo honen bidez, umeak txikitatik esparru tekniko eta teknologikoetara hurbiltzen lagundu nahi da.

Iruñea, 2022ko otsailaren 11n

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunarekin batera, Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) TXAC PLANET inizatibaren edizio berria aurkeztu du gaur prentsaurrekoan. Transmedia metodo hau bigarren urtez jarraian ezarriko da Tuteran, Zangozan, Beran eta Vianan kokatutako Nafarroako lau ikastolatan. Egitasmo honen helburua lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek trebetasun konputazionalak eskuratzea eta programazio hizkuntza lantzea eta horretara ohitzea da, arazoak konponduz eta prozesuak sortuz, **XXI. mendeko hizkuntzara egokitutako gaitasun digital berriak eskura ditzaten.**

Horrela, joan den ikasturtean TXAC PLANETekin lanean hasi ziren 635 ikasleei Nafarroako 4 ikastoletako beste 100 ikasle gehitu zaizkie ikasturte honetan. Ume guzti hauek hizkuntza konputazionala eta programazio hizkuntza ikasgeletan ikasiko dute TXAC PLANET ereduari esker. Eredu horrek ikus-entzunezko **45 kapitulu eta ariketa eta tutorial ugari dituen doako plataforma telematikoa biltzen ditu**, euskaraz garatutako ikaskuntza eta kreatibitateko ingurune ludiko batean.

Nafarroako ikastoletan egiten ari den ezarpena hiru eskualderen lankidetzan du: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nouvelle Aquitaine eta Nafarroa. **GAIA Klusterrak, Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE), Kanaldudek eta Azaroa Filmsek ere parte hartzen dute, NAEN Euroeskualdearen laguntzarekin.**

Irene López-Goñik, NIEko arduradun pedagogikoak azaldu duenez, «iazko esperientzia oso ona izan zen zentzu guztietan, eta, beraz, ez dugu zalantzarik izan Euroeskualdearen proiektu honetan parte hartzeko, dagoeneko ezagutzen ditugun erakunde eta enpresekin batera». **«Ikasleak modu errazean baina eraginkorren hurbilduko dira programazio hizkuntzara eta oinarriak prestatuko dituzte, momentua iristen denean, programazio hizkuntza profesionalera jauzia eman ahal izateko.** Horretaz gain, lehen edizioaren abantailak programazio hizkuntzarekin inoiz lan egin ez duten irakasleentzat ere izan dira, TXAC PLANETeko kapituluak eskaintako azalpen argiei esker, klasean modu seguruan aplikatzen hasi batzuten», esan zuen.

Era berean, gogorarazi du ikastolek, irakaskuntza-kooperatiba diren aldetik, abantaila dutela, gai pedagogikoei buruzko erabakietan autonomia izatea, «horietako abantaila bat izan da proiektu hau eta ezin hobeto egokitzen da ikastolen planetara ikasleen gaitasun digitalen garapenari dagokionez, EBk ezartzen duen bezala. Gainera, programazio hizkuntza aplikatuz, gure DNAn dauden balioak lantzen ditugu, hala nola, ikasleen **lan kooperatiboa eta genero-arrakala murrizten (eta, ahal bada, desagerrarazten)** laguntzea», azaldu du.

Bestalde, Eider Caraciolo GAIA Klusterreko Azpiegitura Sektorialen arduradunak eskerrak eman dizkio NIEri, bigarren urtez jarraian TXAC PLANET ezartzearen alde egin duelako. «Horrela Nafarroako haurrak mundu digitalarekin lotutako eduki berrietara hurbildu ahal izango dira, hala nola zibersegurtasunaren ingurunera», azaldu du.

Caraciolok azpimarratu duenez, «ezin dugu ahaztu **programazioa gero eta hizkuntza garrantzitsuagoa dela eta izango dela** gaur egun bizi dugun eraldaketa-etapa honetan, eta horregatik proiektu hau garrantzitsua da, ikastolen eta ikastetxeen eskura jartzen baititu pentsamendu konputazionala garatzeko tresna digitalak». Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunean, GAIA Klusterraren ordezkariak azpimarratu nahi izan du oso garrantzitsua dela ikasleek horrelako ekimenetan parte hartzea, «horregatik, neskatoak TXAC PLANET erabiltzera eta programazioaren moduko mundu interesgarri baten ateak irekitzera animatzen ditugu».

Azaroa Filmsetik, María Vallejok nabarmendu du, bigarren edizioko berrikuntzen artean adin handiagoko publiko bati zuzentzen zaiola; programazio-mailan konplexutasun handiagoko erronkak proposatzen dituela; eta zibersegurtasunari buruzko edukia gehitzen duela, «gai honi buruzko funtsezko kontuak landuz, **teknologia eta sareen erabilera arduratsua sustatzeko helburuarekin**». Eta horrela amaitu du: «Txac PLANETek makinaren hizkuntza irakasten du, eta makinaren erabilera zuzena ere sustatzen du».

Kanaldudek ere Euroeskualdearen proiektuan parte hartzen du, Ipar Euskal Herrian TXAC PLANET teleaileko ikus-entzunezko kapituluak zabalduz.

Plataforma

Programa hau [Toolbox.Academy](https://www.toolbox.academy) edo TXAC plataforman oinarrituta dago eta ikus-entzunezko kapituluak aurkezten dituzten kontzeptuak landuz hainbat ataza ebazteko aukera ematen duen programazio-ingurunea da.

Ikus-entzunezko kapituluak Azaroa Films enpresak garatu ditu eta plataforma Malagako Unibertsitateak eta bere spin-off Digitomicak egin du. Francisco Vico, unibertsitate honetako katedratiko bat, prentsaurrekoan egon da online moduan. Bere hitzaldian, etorkizunean gazteak izango diren neskatoak ingeniarietza karrerak ikastera eta programazioan, telekomunikazioan edo ingeniarietan sortuko diren lanpostuetara sartzera bultzatu ditzakeen inizatiba dela azpimarratu du.

Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://www.txac.eu/eu/ekosistema/txac-planet/>

Prentsaurrekoaren partaideak:

- Josu Reparaz (Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendaria)
- Irene López-Goñi (Nafarroako Ikastolen Elkarteko arduradun pedagogikoa)
- Eider Caraciolo (GAIako ordezkaria)
- Pantxika Maitia (KANALDUDEko ordezkaria)
- Francisco Vico (Malagako Unibertsitateko Adimen Artifizialeko katedraduna)